

## IN MEMORIAM GERARDO LOPEZ DE GUEREÑU GALARRAGA (1904-1992)

Lehengo abenduak 2, 88 urte zituela, Gasteizen hil zen Gerardo Lopez de Guereñu Galarraga jauna, ohorezko euskaltzaina. Zinez esan liteke bizi izan zen bezalaxe hil ere nahi izan zuela, hotsik eta arrabotsik gabe. Jende gutik zekien erietxera eramana izan zela. Ez ziren asko, dirudienez, heriotzearen berri izan zutenak. Ehorzketan hamabost bat lagun ginen, eta hiletan, Done Bikendiko elizan, dozena batzuk besterik ez, folklore-biltzaile handiari azken agurra eginez.

Galeraren handiak izutzen du. Joan zaigu langile nekaezina, ohitura, esaera eta hitz biltzaile porrokatua. Haren liburu eta artikuluen lerrokada hutsa luze-luzea da, gaztetandik hil arterainoko bizitza lanerako eskainiaren fruitua, Arabaren erroak, kondaira eta izaera ikertzen.

Lehen tokia merezi du, zalantzarik gabe, *Voces alavesas* lanak, *Euskera* aldizkariaren ale berezi batean argitaratuak, 1958an. Hor ageri dira, Araban erabili izan diren edota erabiltzen diren hitzak, gehienak euskararikoak, gure hizkuntza zaharra joan izan arren bertan geldituak. *Ardu-ra*, *cençay*, *ondarras*, *potolo*, *tegui* eta mila horrelako daude orrialde horietan zerrendatuak, bakoitza bere oharrarekin, testuingurua edo data eta lekua. Eraskin bat argitaratu zuen, handik urte batzuetara, egileak, *Euskera* aldizkari berean, baina, zoritxarrez, ez du ikusiko, zenbait hila-beterengatik, bigarren argitarapena, hasierako haren eta geroko eraskinaren hartzailea. Hiztegi honen parte bat, botanikari zegokiona, liburu batean ederki eman zuen 1975ean: *Botánica popular alavesa* deritzanean.

Bitartean, Guereñu Arabako lekuizenak sailka ematen hasia zen, "Toponimia alavesa" tituluarekin, *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian, 1958z gero. Hogei mila baino gehiago lekuizen dira guztira, bakoitza bere markarekin, urtea eta tokia. Euskaltzaindiak, 1989an, lekuizen-zerrenda aberats hori liburu baten jaso zuen, "Onomasticon Vasconiae" bilduman, Guereñuren beste bi lan interesgarriekin: "Mortuorios o despoblados", desagerturiko herrien ikerketa zehatza, eta "Pueblos alaveses", Arabako herrien izenak historian barrena, haietatik datozen deiturekin batera.

*Alava, solar de arte y de fe* da, 1962koa, probintzia honetako eliza eta ermita guztien lerrokada. Testu liburu balitz bezala, *el Guereñu* deitu izan dugu liburu hau, paleografi testu nahitaezko hura *el Millares* deitzen genuen bezala. Eta benetan testu eta eskuliburu genuen.

Lopez de Guereñu folklore-zalea ederkienik *Calendario alavés* liburuan ageri da, urtatsetik urteamaierara Arabako ohituren zerrenda, *Boletín de la Institución Sancho El Sabio* aldizkariaren ale berezi gisa, 1970an. Beste lan asko plazaratu zituen etnografi alorrean, hala nola “La vida infantil en la Montaña alavesa”, “La matanza del cerdo en Alava” eta beste. Artikulu eta liburu hauetan, jakina, leku berezia du Apiñaniz herriak, Guereñuren uda-lekuak.

Fededuna zen errotik Lopez de Guereñu eta hori nabarmena da zenbait lanetan. Areago, Guereñuren obraren halako *causa efficiens* haie-tatik bat da, zalantzarik gabe. Horra *Devoción de España a la Virgen Blanca* liburua (1970), esaterako, edota *Devoción en Alava a Nuestra Señora de Aránzazu* (1980).

Gu guztiongan dago, jakina, Guereñuren lanaren aztarna. Arabako kondaira eta lehengo eta oraingo hizkuntz egoera eta izaera ezagutzeko nahitaezkoa dugu haren fruitu jori preziatua. Aski da geroz egindako ikerketak ikustea, Mitxelena jaunaren *Fonética historia vasca*-tik hasita. Mitxelenak berak eskaini zion *Voces alavesas* liburuari lehenbiziko kontu ematea, *Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País* aldizkarian, 1959an. Behar zen bezala gorai patzen zuen maisu zaharrak Guereñuren lana, eta ederki marrazten ere zituen lan horren azpegiak: zehaztasuna (“ha expuesto con orden y claridad, y sobre todo con la mayor objetividad posible”), eta apaltasuna (“No se ha enfrentado con los ‘grandes problemas’: no le interesa por el momento el pasado lingüístico de Alava ni la procedencia de las palabras que registra...”). Gainera, Mitxelenak beste gauza bat zioen kontu emate horretan: Guereñuk ez zuela bereizkeriarik egin, euskaratikoen eta erdaratikoen hitzen artean (izan ere, tentaldia batek baino gehiagok izan dezake eta izan ere du). Oroitzen naiz hori bera errepikatu zuela errentiarrak bazkari batean, Gasteizen, 1981an, Euskaltzaindiak Guereñu euskaltzain ohorezkoa izendatu ondoan.

Euskaltzain ohorezkoa, eta benetan esan behar da merezimendu osoz bereganatu zuela Guereñuk izendapena, zenbait urte lehenago euskaltzain urgazlearena bereganatu ondoren.

Esan behar da, orobat, izendapen, omenaldi eta ohore-emate hauek ez zituela Guereñuk oso gogoko. Halako ezinegona zen harengan une horietan. Eskertu, jakina, eskertzen zuen jendearen txaloea eta erakundeen (Euskaltzaindia, Euskal Herriaren Adiskideak eta beste) sariak. Baina hura paperen artean zen zorionsuenik edota, ahal izan zuen bitar-



tean, herriz herri, mendian eta zelaian, hitzak, esaerak, ohiturak, tresnak eta abar biltzen.

Horixe da askoren oroitzapenean betiko geldituko den Lopez de Guereñu, etxeko jantokian hizketan, handituz zihoan gorreriatatik ahurra ezarriz belarri ondoan, emazte ona bisitariei zerbait eskaintzen ari zen bitartean. Argazkiek jendea den bezala hartzen dute batzuetan, eta argazki ederra da Alberto Schommer-ek bion *Araba zabaldua* liburuan (1981) jaso zuena.

Etxe hura, ordea, azken urteetan hustuz joan zen lazgarriro. Emaztea ez ezik, semea, Gerardo Lopez de Guereñu Iholdi (hura ere etnografian aritua), bizitzaren halako erdian, joan zitzaion, eta lehenagoxe erraina, Maitane Larrañaga eibartarra.

Bego Guereñu betiko atsedenean. Gorde bedi Guereñu eta Guereñutarren artxiboa, ikerketaren onuragarri. Eta bizi bedi haien esenplua, arbasoengandiko natur eta kultur ondarearekiko maitasuna eta lantze-zaletasuna.

*E. Knörr*